



CONVOCATORIA DE DIVERSAS PLAZAS ADMINISTRATIVAS

EJERCICIO 2 SOBRE TEMAS ESPECÍFICOS

APARTADO PRÁCTICO

19 de febrero de 2022

ADMINISTRARIEN HAINBAT PLAZATARAKO DIEALDIA

2. ARIKETA GAI ESPEZIFIKOEI BURUZ

ATAL PRAKTIKOA

2022ko otsailaren 19an

CASO 1

El 14 de mayo de 2019, doña Inés Alonso, vecina del término municipal de Irun, presenta ante el Ayuntamiento de Irun una solicitud para el inicio de un procedimiento de responsabilidad patrimonial, por una caída que sufrió en la vía pública el 12 de marzo de 2018 al pisar una baldosa en mal estado sita en la calle A de dicho municipio. Acompaña a su solicitud informe médico acreditativo de las lesiones sufridas, así como factura del tratamiento fisioterapéutico que, por prescripción médica debidamente acreditada, hubo de seguir hasta su plena recuperación. Adjunta además un informe médico acreditativo de su completa curación, el pasado 30 de mayo de 2018, así como fotografías del mal estado de la citada baldosa.

Posteriormente, el día 20 de mayo de 2019, doña Inés Alonso formula en el Registro electrónico del Ayuntamiento de Hondarribia nueva solicitud dirigida al Ayuntamiento de Irun para el inicio de otro procedimiento de responsabilidad patrimonial, por un resbalón que sufrió el 30 de abril de 2018 en la calle B. Alega en su solicitud que dicho resbalón fue provocado por una pequeña fuga de agua proveniente de una boca de riego sita en la vía pública y que mojó la acera; si bien admite en su solicitud que resultó ilesa tras la caída, adjunta factura de la reparación de unas gafas que quedaron dañadas al caer sobre ellas, así como una fotografía del estado en que quedaron las citadas gafas tras el percance.

Tras tener noticia de la posibilidad de solicitar el inicio de un procedimiento de responsabilidad patrimonial por parte de doña Inés Alonso, su vecino, don Matías Ruiz, que también resbaló en la calle C el pasado 30 de noviembre de 2018 a consecuencia de un socavón existente en un paso de cebra, presenta solicitud el 30 de mayo de 2019 por la rotura de un reloj de pulsera a consecuencia de la caída sufrida, pero no acompaña documentación acreditativa de la cuantía a la que ascendió la reparación del citado reloj.

Con fecha 15 de julio de 2019, el Alcalde estima la reclamación interpuesta por doña Inés Alonso por los daños sufridos a consecuencia de la caída sufrida en la calle A, reconociendo la causalidad entre el mal estado del pavimento y la lesión sufrida, así como una indemnización a favor de la solicitante por un importe inferior al de la cantidad reclamada. La notificación la recoge en el domicilio de doña Inés Alonso el joven Mikel Uria, de 15 años de edad, amigo del hijo de doña Inés. Posteriormente, el 20 de diciembre de 2019, don Matías Ruiz recibe la notificación de una resolución dictada directamente por el funcionario responsable del negociado de Secretaría, a través de la cual se desestima su solicitud, por no haberse acreditado fehacientemente la evaluación económica de la responsabilidad patrimonial reclamada.

1 KASUA

2019ko maiatzaren 14an, Ines Alonso andreak, Irungo bizilaguna, eskaera bat aurkeztu zuen Irungo Udalean ondare-erantzukizuneko prozedura bat hasteko, izan ere 2018ko martxoaren 12an bide publikoan erori egin zen aipatu udalerrri horretako A kalean egoera txarrean zegoen baldosa bat zapaldu zuenean. Eskaerarekin batera medikuaren txostena aurkeztu du, jasandako zauriak egiaztatzeko, eta preskripzio medikuagatik, behar bezala egiaztatuta, erabat osatu arte jarraitu behar izan zuen tratamendu fisio-terapeutikoaren faktura ere aurkeztu du. Gainera, 2018ko maiatzaren 30erako erabat osatu dela egiaztatzeko medikuaren txosten bat aurkeztu du, eta aipatutako baldosa hura egoera txarrean zegoela erakusteko argazkiak ere erantsi ditu.

Ondoren, 2019ko maiatzaren 20an, Ines Alonso andreak Hondarribiko Udaleko Erregistro elektronikoan eskaera berri bat aurkeztu du Irungo Udalari zuzenduta, ondare-erantzukizuneko beste prozedura bat hasteko, 2018ko apirilaren 30ean B kalean irristatu egin zelako. Eskaera horretan alegatzen du irrist egitea bide publikoan dagoen ur-hargune bateko ihes txiki batek eragin zuela, espaloia busti egin baitzuen; nahiz eta bere eskaeran onartzen duen erorketatik zauririk gabe irten zela, betaurreko batzuk konpondu izanaren faktura aurkeztu du, erori zenean betaurreko gainera erori baitzen eta puskatu egin ziren; istripuaren ondoren betaurrekoak zein egoeretan geratu ziren erakusteko argazki bat ere erantsi du.

Ines Alonso andreak ondare-erantzukizuneko prozedura bat hasteko eskaera egin dezakeela jakin duelarik, bere auzokoak, Matias Ruiz jaunak, 2018ko azaroaren 30ean C kalean irrist egin baitzuen berak ere zebra-bide batean, zulo bat zegoelako, 2019ko maiatzaren 30ean eskaera bat aurkeztu du orduan gertatu zitzaion erorketaren ondorioz eskumuturreko erlojua hautsi zitzaiolako, baina erlojua konpontzeagatik ordaindu zuen diru-zenbatekoa egiaztatzeko dokumentazioa ez du erantsi.

2019ko uztailaren 15ean, Ines Alonso andreak jarritako erreklamazioa onartu du Alkateak, A kalean erori zenean jasandako kalteengatik jarritakoa, eta zoladuraren egoera txarra eta erorketaren arteko kausalitatea aitortu du, baita eskatzailearen aldeko indemnizazio bat ere, erreklamatutako kopurua baino zenbateko txikiagoan. Jakinarazpena, Ines Alonso andrearen bizitokian Mikel Uria gazteak jaso du, 15 urte ditu eta Ines andrearen semearen laguna da. Ondoren, 2019ko abenduaren 20an, Matias Ruiz jaunak jaso du Idazkaritza saileko arduraduna den funtzionarioak egindako ebazpenaren jakinarazpena. Ebazpen horretan jakinarazten zaio aurkeztu zuen eskaera ez dela onartzen, erreklamatutako ondare-erantzukizunaren ebaluazio ekonomikoa ez delako zehatz-mehatz egiaztatzen.

En base a la información anterior, responda a las siguientes cuestiones:

- 1. La notificación de la resolución de la reclamación presentada por doña Inés Alonso por las lesiones físicas sufridas a raíz de su caída en la calle A:**
 - a. Fue incorrectamente efectuada por entregarse a una persona sin vínculo alguno de parentesco o servicio.
 - b. Fue incorrectamente efectuada por hacerse cargo de la misma un menor de 16 años.
 - c. Fue incorrectamente efectuada por no haberse cursado electrónicamente, por ser obligación de todas las personas físicas y jurídicas aceptar la notificación electrónica.
 - d. Fue correctamente efectuada por hacerse cargo de la misma una persona mayor de catorce años que se encontraba en el domicilio.

- 2. La reclamación presentada en el Ayuntamiento de Hondarribia por doña Inés Alonso por las lesiones físicas sufridas a raíz de su caída en la calle B:**
 - a. Es admisible porque el Ayuntamiento de Irun y el de Hondarribia están obligados a aceptar documentos del municipio vecino por formar parte de la misma comarca.
 - b. Es admisible porque los documentos se pueden presentar en el registro electrónico de la Administración u Organismo al que se dirijan, así como en los restantes registros electrónicos de cualquier entidad local, entre otros.
 - c. No es admisible, porque se requeriría acuerdo plenario por mayoría absoluta de los dos Ayuntamientos.
 - d. Es admisible porque se trata de un defecto de forma subsanable.

- 3. La resolución recaída en relación a la solicitud formulada por don Matías Ruiz por las lesiones físicas sufridas a raíz de su caída en la calle C:**
 - a. Es nula de pleno derecho, por haber sido dictada extemporáneamente.
 - b. Es nula de pleno derecho, por haber sido dictada por órgano manifiestamente incompetente por razón de la materia.
 - c. Es anulable, por haber sido dictada por órgano manifiestamente incompetente por razón de la materia.
 - d. Es ajustada a derecho.

Aurreko informazioan oinarrituta, ondorengo galderak erantzun:

- 1. A kalean erori zenean jasandako lesio fisikoengatik Ines Alonso andreak aurkeztutako erreklamazioari buruz eginiko ebazpenaren jakinarazpena:**
 - a. Oker egin zen, ahaidetasun edo zerbitzu-loturarik gabeko pertsona bati entregatu zitzaiolako.
 - b. Oker egin zen, jakinarazpenaren ardurua 16 urtetik beherako batek hartu zuelako.
 - c. Oker egin zen, elektronikoki bideratu ez zelako, pertsona fisiko eta juridiko guztien obligazioa baita jakinarazpen elektronikoa onartzea.
 - d. Zuzen egin zen, jakinarazpenaren ardurua bizitokian aurkitzen zen hamalau urtetik gorako pertsona batek hartu zuelako.

- 2. Ines Alonso andreak B kalean erori zenean jasandako lesioengatik Hondarribiko Udalean aurkeztutako erreklamazioa:**
 - a. Onargarria da, Irungo Udala eta Hondarribiko Udala behartuta daudelako ondoko udalerriko dokumentuak onartzera, eskualde berekoak direlako.
 - b. Onargarria da, dokumentuak aurkeztu daitezkeelako zuzentzen zaizkion administrazio edo erakundeko erregistro elektronikoen, baita, besteak beste, edozein toki-erakundetako gainerako erregistro elektronikotan ere.
 - c. Ez da onargarria, bi Udaletako osoko bilkuren gehiengo osoaren akordioa beharko lukeelako.
 - d. Onargarria da, zuzendu daitekeen forma-akats bat delako.

- 3. Matías Ruiz jaunak C kalean erorita jasandako lesio fisikoengatik egindako eskaeraren inguruan emandako ebazpena:**
 - a. Zuzenbide osoz deuseza da, garaiz kanpo eman delako.
 - b. Zuzenbide osoz deuseza da, gaiari dagokionez argi eta garbi eskumenik ez duen organoak eman duelako.
 - c. Deuseztagarria da, gaiari dagokionez argi eta garbi eskumenik ez duen organoak eman duelako.
 - d. Zuzenbidearekin bat dator.

- 4. La falta de acreditación de la evaluación económica de la responsabilidad patrimonial reclamada por parte de don Matías Ruiz, en su escrito de iniciación del procedimiento para su reconocimiento:**
- a. Ha de conllevar la desestimación de su solicitud, mediante resolución dictada al efecto.
 - b. No tiene relevancia alguna, puesto que no es algo que el interesado deba especificar, en ningún caso, en la solicitud para el inicio de un procedimiento de responsabilidad patrimonial.
 - c. Conlleva que se deba requerir al solicitante para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe dicha documentación, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada al efecto.
 - d. Conlleva el archivo de la solicitud por incompleta, sin más trámite.
- 5. En la vía administrativa y contra la resolución dictada el 15 de julio de 2019, en relación a la solicitud formulada por doña Inés Alonso por su caída en la calle A:**
- a. Cabe recurso potestativo de reposición, porque la resolución administrativa de los procedimientos de responsabilidad patrimonial pone fin a la vía administrativa.
 - b. Cabe recurso de alzada ante el superior jerárquico, porque la resolución administrativa de los procedimientos de responsabilidad patrimonial no pone fin a la vía administrativa.
 - c. Cabe recurso de alzada ante el superior jerárquico, porque la resolución administrativa de los procedimientos de responsabilidad patrimonial pone fin a la vía administrativa.
 - d. Cabe recurso potestativo de reposición o de alzada, indistintamente y a elección de la propia interesada.
- 6. El plazo para la interposición del correspondiente recurso administrativo contra la resolución dictada el 15 de julio de 2019, en relación a la solicitud formulada doña Inés Alonso por su caída en la calle A, es de:**
- a. Un mes, por tratarse de un acto expreso.
 - b. Dos meses, por tratarse de un acto expreso.
 - c. Un mes, por tratarse de un acto presunto.
 - d. Dos meses, por tratarse de un acto presunto.

- 4. Matías Ruiz jaunak erreklamaturako ondare-erantzukizunaren ebaluazio ekonomikoa egiaztatu ez izanak, berori aitortua izan zedin prozedura hasteko eginiko idatzian:**
- a. Eskaera ezestea eragin behar du, horretarako emandako ebazpenaren bidez.
 - b. Ez dauka inolako garrantzirik, ez baita interesdunak zehaztu behar duen zerbait, inola ere ez, ondare-erantzukizuneko prozedura bat hasteko eskaeran.
 - c. Horrek dakarrena da eskatzaileari errekerimendua egin behar zaiola hamar eguneko epean akatsa zuzendu eta aipatu dokumentazioa aurkeztu dezan, eta hala egin ezean, eskaeran atzera egiten duela ulertuko dela, helburu horrekin egin beharko den ebazpena eman ondoren.
 - d. Eskaera artxibatzea dakar, ez dagoelako osorik, beste tramiterik gabe.
- 5. Administrazio-bidean eta 2019ko uztailaren 15ean emandako ebazpenaren aurka, Ines Alonso andreak A kalean erori zelako eginiko eskaerari dagokionez:**
- a. Aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri dezake, ondare-erantzukizuneko prozeduren ebazpen administratiboak administrazio bideari amaiera ematen diolako.
 - b. Gora jotzeko errekurtsua jar dakioke hierarkian gorago dagoenari, ondare-erantzukizuneko prozeduren ebazpen administratiboak ez diolako administrazio bideari amaiera ematen.
 - c. Gora jotzeko errekurtsua jar dakioke hierarkian gorago dagoenari, ondare-erantzukizuneko prozeduren ebazpen administratiboak administrazio bideari amaiera ematen diolako.
 - d. Aukerako berraztertze edo gora jotzeko errekurtsua jar daiteke, bata nahiz bestea, eta interesdunak berak aukeratuta.
- 6. 2019ko uztailaren 15ean emandako ebazpenaren aurka dagokion errekurtsu administratiboa jartzeko epea, Ines Alonso andreak A kalean erori zelako eginiko eskaerari buruz, honakoa da:**
- a. Hilabetekoa da, egintza espresua delako
 - b. Bi hilabetekoa da, egintza espresua delako.
 - c. Hilabetekoa da, egintza presuntzioskoa delako.
 - d. Bi hilabetekoa da, egintza presuntzioskoa delako.

- 7. En relación al procedimiento en materia de responsabilidad patrimonial iniciado por doña Inés Alonso, en relación a su caída en la calle B, señale el plazo que ha de transcurrir para que se entienda resuelto por acto presunto:**
- a. Un mes desde que se inició el procedimiento sin que haya recaído y se notifique resolución expresa.
 - b. Dos meses desde que se inició el procedimiento sin que haya recaído y se notifique resolución expresa.
 - c. Tres meses desde que se inició el procedimiento sin que haya recaído y se notifique resolución expresa.
 - d. Seis meses desde que se inició el procedimiento sin que haya recaído y se notifique resolución expresa.
- 8. El 22 de enero de 2020, doña Inés Alonso se interesa por su solicitud de inicio del procedimiento de responsabilidad patrimonial, en relación a su caída en la calle B. El órgano competente del Ayuntamiento de Irun comprueba que no ha recaído resolución expresa y, por lo tanto, habrá de informarle de que:**
- a. Podrá entenderse que la resolución es favorable a la indemnización del particular, sin perjuicio de que la resolución expresa posterior a la producción del acto pudiera dictarse sin vinculación al sentido del silencio administrativo.
 - b. Podrá entenderse que la resolución es contraria a la indemnización del particular, sin perjuicio de que la resolución expresa posterior a la producción del acto pudiera dictarse sin vinculación al sentido del silencio administrativo.
 - c. Podrá entenderse que la resolución es favorable a la indemnización del particular, y la resolución expresa posterior a la producción del acto únicamente podrá confirmar el sentido del silencio administrativo.
 - d. Podrá entenderse que la resolución es contraria a la indemnización del particular, y la resolución expresa posterior a la producción del acto únicamente podrá confirmar el sentido del silencio administrativo.

- 7. Ines Alonso andreak, B kalean erortzearen inguruan ondare-erantzukizunaren alorrean hasitako prozedurari dagokionez, adierazi zein epe igaro behar den presuntziozko egintza bezala ebatzita dagoela ulertzeko:**
- Prozedura hasi zenetik hilabete, berariazko ebazpen espresurik eman eta jakinarazi ez bada.
 - Prozedura hasi zenetik bi hilabete, ebazpen espresurik eman eta jakinarazi ez bada.
 - Prozedura hasi zenetik hiru hilabete, ebazpen espresurik eman eta jakinarazi ez bada.
 - Prozedura hasi zenetik sei hilabete, ebazpen espresurik eman eta jakinarazi ez bada.
- 8. Ines Alonso andreak ondare-erantzukizunezko prozedura hasteko eskaera egin zuen, B kalean erori zelako. 2020ko urtarrilaren 22an horri buruz galdetu ondoren, Irungo Udaleko organo eskudunak egiaztatu du ez dela ebazpen espresurik eman eta, beraz, zera jakinarazi beharko zaio:**
- Ebazpena partikularra indemnitzatzearen aldekoa dela ulertu ahal izango da, hargatik eragotzi gabe ekintza gertatu ondorengo ebazpen espresua administrazio-isiltasunaren esanahiarik lotu gabe eman ahal izango litzatekeela.
 - Ebazpena partikularra indemnitzatzearen aurkakoa dela ulertu ahal izango da, hargatik eragotzi gabe ekintza gertatu ondorengo ebazpen espresua administrazio-isiltasunaren esanahiarik lotu gabe eman ahal izango litzatekeela.
 - Ebazpena partikularra indemnitzatzearen aldekoa dela ulertu ahal izango da, eta ekintza gertatu ondorengo ebazpen espresuak administrazio-isiltasunaren esanahia soilik berretsi ahal izango du.
 - Ebazpena partikularra indemnitzatzearen aurkakoa dela ulertu ahal izango da, eta ekintza gertatu ondorengo ebazpen espresuak administrazio-isiltasunaren esanahia soilik berretsi ahal izango du.

CASO 2

El 8 de noviembre de 2021, doña María Aguirre, con D.N.I. número 12345678A, mayor de edad y vecina de Donostia - San Sebastián, presenta ante el Ayuntamiento de Irun cuatro solicitudes para obtener una serie de informaciones públicas relacionadas con la gestión municipal, al amparo de lo dispuesto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, e incluyendo su dirección de contacto. Las cuatro solicitudes se refieren a lo siguiente:

- **Solicitud 1:** Copia del contenido y de los criterios de corrección de las pruebas realizadas en el marco de la fase de oposición del proceso selectivo para la provisión de seis plazas administrativas que se convocó en el año 2018, y que culminó con el nombramiento de diversos/as funcionarios/as de carrera por resolución de Alcaldía de 5 de noviembre de 2019. La solicitante no tomó parte en dicho proceso selectivo y no motiva su solicitud.
- **Solicitud 2:** Número de horas de crédito para la acción sindical disfrutadas por los miembros de la Policía Local durante el año 2020, y comparativa de dichos datos con los de los principales Ayuntamientos del entorno, especificando si el uso de dicho crédito en el turno nocturno es superior en la Policía Local de Irun respecto de lo que acontece en otros municipios colindantes. Interesa también se le proporcione información sobre si quien desempeña la jefatura del Servicio también hace uso de dicho crédito horario y, en su caso, solicita saber su sindicato de pertenencia. Motiva dicha solicitud en su afán de conocer la implicación de los miembros de la Policía Local de Irun en el desempeño sus funciones.
- **Solicitud 3:** Criterios seguidos por la Policía Local para la investigación de los recientes robos acaecidos en el centro de la ciudad, con indicación de las pesquisas realizadas, los lugares en los que se infiltran los efectivos de la Policía Local de paisano para la prevención de estos hechos, los horarios en los que se realizan las investigaciones, etc. Motiva la solicitud en su preocupación por estos hechos, dado que posee familiares que residen en la zona y que no se sienten seguros con la escasa presencia policial existente.
- **Solicitud 4:** Información acerca de los vehículos propiedad del personal municipal que se hallan autorizados para aparcar gratuitamente en el reservado sito frente a la Casa Consistorial, con indicación de su matrícula, la identidad de su propietario/a y el puesto de trabajo ocupado por éste/a. Motiva la solicitud en su ánimo de conocer si está justificada esta autorización en razón del cometido asignado a cada persona beneficiaria, o constituye una dispensa arbitraria.

2 KASUA

2021eko azaroaren 8an, Maria Aguirre andreak, N.A.N. zenbakia 12345678A, adinez nagusia eta Donostiako bizilaguna, Irungo Udalean lau eskaera aurkeztu ditu udal kudeaketarekin zerikusia duten informazio publiko batzuk lortzearren, gardentasun, informazio publikoaren irisgarritasun eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezartzen denaren arabera, eta kontakturako bere helbidea eransten du. Lau eskaerak gai hauei buruzkoak dira:

- **1. eskaera:** 2018an sei lanpostu administratibo betetzeko deitu zen hautaketa-prozesuko oposizio fasearen esparruan egindako proben edukiaren eta zuzenketa-irizpideen kopia, Alkatetzaren 2019ko azaroaren 5eko ebazpenaren bidez karrerako funtzionario batzuk izendatuz amaitu zena. Eskatzaileak ez zuen hautaketa-prozesu horretan parte hartu, eta ez du bere eskaera arrazoitu.
- **2. eskaera:** 2020an Udaltzaingoko kideek jarduera sindikalerako baliatu dituzten kreditu-orduen kopurua, eta datu horiek inguruko Udal handien datuekin alderatzea, Irungo Udaltzaingoa gauko txandan kreditu hori mugakide diren beste udalerrietan baino gehiago erabiltzen ote den zehaztuz. Zerbitzuko buruzagitza betetzen duenak ere orduen kreditu hori erabiltzen ote duen ere jakitea nahi du, eta hala badagokio, bere sindikatua zein den jakin nahi du. Eskaera hori egiteko arrazoia da Irungo Udaltzaingoko kideek beren eginkizunetan duten inplikazioa ezagutzea.
- **3. eskaera:** Udaltzaingoak jarraitu dituen irizpideak hiriaren erdigunean berriki izandako lapurretak ikertzeko, egindako ikerketak zein izan diren adierazita, Udaltzaingoko kalez jantzitako agenteak non infiltratzen diren gertakari horiek prebenitzeko, ikerketak zein ordutegitan egiten diren, etab. Eskaera aurkezteko arrazoia gertaera horiengatik kezkatuta dagoelako da, zonaldean bizi diren familiartekoak dituelako eta ez direlako seguru sentitzen poliziaren presentzia eskasagatik.
- **4. eskaera:** Udaletxearen parean dagoen toki erreserbatuan doan aparkatzeko baimena duten udal langileen ibilgailuei buruzko informazioa, matrikula, jabearen nortasuna eta betetzen duen lanpostua adierazita. Eskaera arrazoitzen du jakin nahi duelako ea baimen hori justifikatuta dagoen onuradun bakoitzari esleitutako egitekoaren arabera, edo dispensa arbitrario bat ote den.

En base a la información anterior, responda a las siguientes cuestiones:

- 9. Las cuatro solicitudes anteriores, ¿contienen todos los requisitos necesarios para ser tramitadas?**
- Sí, contienen todo lo necesario para ser tramitadas.
 - No, porque en alguna de ellas falta la motivación de la solicitud.
 - No, porque no cabe tramitar solicitudes de acceso a la información pública formuladas por personas no residentes en la Administración territorial a la cual se dirigen.
 - No, porque no se indica el Departamento municipal al cual se dirige cada solicitud.
- 10. ¿Se aprecia algún motivo de inadmisión de la solicitud 1, relativa al contenido de las pruebas y de los criterios de corrección del proceso selectivo de referencia?**
- Sí, porque la solicitud se formula por una persona que carece de legitimidad para ello, al no haber tomado parte en el citado proceso selectivo.
 - Sí, porque la solicitud no está suficientemente motivada.
 - Sí, porque el contenido de las pruebas de selección y los criterios para su corrección no son revelables a terceras personas, para garantizar el acceso al empleo público en condiciones de igualdad.
 - No se aprecian motivos de inadmisión.
- 11. ¿Se aprecia algún motivo de inadmisión de la solicitud 2, en lo relativo al número de horas de crédito para la acción sindical y su comparativa con otras Administraciones del entorno?**
- No se aprecian motivos de inadmisión.
 - Sí, porque la solicitud se refiere a información para cuya divulgación es necesaria una acción previa de reelaboración.
 - Sí, porque la motivación de la solicitud no posee base suficiente, teniendo en cuenta que la solicitante ni siquiera reside en el municipio.
 - Sí, porque la solicitud no se dirige al órgano en cuyo poder obra la información solicitada que, en su caso, habría de ser aportada por las secciones sindicales a la que pertenezcan las personas afectadas.

Aurreko informazioan oinarrituta, ondorengo galderak erantzun:

9. Aurreko lau eskaerek, tramitatuak izateko baldintza guztiak betetzen al dituzte?

- Bai, tramitatuak izateko behar den guztia daukate.
- Ez, haietakoren batean eskaera arrazoitzea falta delako.
- Ez, informazio publikoa eskuratzeko eginiko eskaera horiek zuzentzen zaizkion lurralde-administrazioan bizi ez diren pertsonak formulatuta badaude ezin direlako tramitatu.
- Ez, eskaera bakoitza zein udal departamenduri zuzentzen zaion ez delako esaten.

10. 1 eskaera ez onartzeko arrazoirik ikusten al da, aipatutako hautaketa-prozesuko proben edukiari eta zuzentzeko irizpideei dagokienez?

- Bai, eskaera hori egiteko legitimitaterik ez duen pertsona batek egin duelako, horretan ez baitu parte hartu.
- Bai, eskaera ez dagoelako behar beste arrazoituta.
- Bai, hautaketa-proben edukia eta horiek zuzentzeko irizpideak ezin zaizkielako hirugarrenei jakinarazi, enplegu publikora berdintasun-baldintzetan iristea bermatzeko.
- Ez onartzeko arrazoirik ez da ikusten.

11. 2 eskaera ez onartzeko arrazoirik ikusten al da, jarduera sindikalerako kreditu-orduen kopuruari eta inguruko beste administrazio batzuekin alderatzeari dagokienez?

- Ez onartzeko arrazoirik ez da ikusten.
- Bai, informazio hori zabaltzeko alde aurretik berriz lantzea beharrezkoa duen informazioari buruzkoa delako eskaera.
- Bai, eskaeraren arrazoiak ez duelako oinarri nahikorik, kontuan hartuta eskatzailea ez dela udalerrian bizi ere.
- Bai, eskaera ez zaiolako zuzentzen eskatutako informazioa daukan organoari; informazio hori, hala badagokio, eragindako pertsona horien atal sindikalek eman beharko lukete.

- 12. En el caso de que el órgano competente del Ayuntamiento de Irun admitiera a trámite la solicitud 2, en lo relativo a la información sobre si quien desempeña la jefatura del Servicio también hace uso de crédito horario para la acción sindical y, en su caso, sobre su sindicato de pertenencia, ¿cabría autorizar el acceso a dicha información?**
- a. No, en ningún caso.
 - b. Sí, en caso de que se cuente con el consentimiento de la persona que desempeña la jefatura del Servicio, siquiera de manera tácita o verbal.
 - c. Sí, en el caso de que una norma de carácter reglamentario amparase dicho acceso.
 - d. Sí, únicamente en caso de que se cuente con el consentimiento expreso y por escrito de la referida persona que desempeña la jefatura del Servicio, a menos que dicha persona hubiese hecho manifiestamente públicos los datos con anterioridad a que se solicitase el acceso.
- 13. El día 10 de diciembre de 2021, doña María Aguirre se presenta en el Ayuntamiento de Irun señalando que no ha recibido información ni notificación alguna referida a la solicitud 3 y solicitando se le informe de sus derechos al respecto. Una vez constatado que lo que afirma es cierto y que no se ha procedido a la ampliación del plazo ordinario de resolución, ¿cuál es la información correcta a facilitarle a dicha interesada?**
- a. Que no ha transcurrido el plazo legal para resolver y que habrá de esperar, en todo caso, a que se le notifique la resolución expresa del Ayuntamiento de Irun.
 - b. Que ha de entender que su solicitud ha sido desestimada y que podrá interponer el recurso potestativo de reposición previo al contencioso-administrativo.
 - c. Que una vez transcurran dos meses desde que presentó la solicitud, sin que haya recibido notificación alguna por parte del Ayuntamiento de Irun, podrá interponer recurso de alzada ante el Alcalde de Irun.
 - d. Que ha de entender que su solicitud ha sido desestimada y que podrá interponer directamente un recurso ante la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, si bien previamente podrá, con carácter potestativo, interponer una reclamación ante el órgano administrativo competente en materia de transparencia previsto legalmente.

12. Irungo Udaleko organo eskudunak 2. eskaera tramitatzea onartuko balu, alegia, Zerbitzuko buruzagitza betetzen duenak ere jarduera sindikalerako ordu-kredituak erabiltzen ote dituen jakiteko informazioa ematea eta, hala badagokio, zein sindikatukoa den esatea, informazio hori eskuratzeko baimena eman liteke?

- a. Ez, inola ere ez.
- b. Bai, Zerbitzuko buruzagitza kargua betetzen duen pertsonaren adostasuna badu, modu tazituan edo ahoz bederen.
- c. Bai, erregelamenduzko arau batek eskuratze hori babesten badu.
- d. Bai, soilik, baldin eta Zerbitzuko buruzagitza kargua betetzen duen pertsonak horretarako baimen espresua eta idatzizkoa ematen badu, pertsona horrek ez baditu behintzat datuak argi eta garbi publiko egin informazioa eskuratzeko eskaera egin aurretik.

13. 2021eko abenduaren 10ean, María Aguirre andrea Irungo Udalean aurkeztu da eta adierazi du ez duela 3. eskaerari buruzko informaziorik edo jakinarazpenik jaso, eta horren inguruan dituen eskubideen berri emateko eskatu du. Baieztatzen duena egia dela eta erabakitzeke epe arrunta ez dela luzatu egiaztatu ondoren, zein da aipatu interesdunari eman beharko litzaiokeen informazio zuzena?

- a. Erabakitzeke legezko epea ez dela igaro eta itxaron egin beharko dela, nolahi ere, Irungo Udalaren ebazpen espresua jakinarazten zaion arte.
